

# HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ERAKUNDE ARTEKO ESPAZIOA

2024ko apirila

## BERRIAK

Indartsu abiatu dugu urtea. 2024ko Erakunde Arteko Espazioaren lehenengo lau hilekoan 2023-2027 planifikazio estrategikoa oinarrian hartuz, 2024rako jardueraplana landu eta onartzeko Bilgune Teknikoa eta Plenaria egin ditugu.

### Bilgune Teknikoa

Otsailaren 15ean egin genuen Bilgune Teknikoan herri handi eta ertainetako 13 teknikarik eta herri txikietako alkate batek parte hartu zuten. Bertan, 2024rako jardueraplana lantzen buru-belarri aritzeaz gain, talde giro aparta sortu izana azpimarratu nahi dugu.

Akta [hemen](#) duzue eskura.



### Plenaria

Martxoaren 15eko Plenariak hiru zati izan zituen. Hasteko, Erakunde arteko Espazioaren kokapen bat egin genuen, azken urtetan modu aktiboan parte hartzen duten bi kideren ahotik: zer den, zergatik edo zertarako den, antolaketa eta ze ekarpen egiten dien. Jarraian, 2024ko jardueraplana aurkeztu eta onartu genuen, eta bertaratuek plangintzarekiko interes-maila jasotzeko dinamikarekin osatu genuen. Eta azkenik, "Herritarrekin gobernantza eta lankidetzak inklusiboagoak" ikerketaren ondorioen aurkezpena izan genuen Aztiker Koop.-en eskutik.

13 ordezkari politiko eta 7 teknikarik parte hartu zuten saioan.

Akta [hemen](#) duzue eskura.



## Tailerren itzulera

Partaidetza eta ekintza komunitarioan sakontzeko, udaletara egokitutako trebakuntza-tailerrak 2024ko apirila amaiera bitarte ari dira gauzatzen. 23 eskaeren baitan, 27 udalerrri ari dira parte hartzen eta maiatzaren 30ean, tailerretan parte hartu duten udalerrri guztietako ordezkarien Topaketa bat egingo dugu: Gipuzkoako Foru Aldundian, GUNEA aretoan, esperientziak elkarbanatu eta ondorio partekatuak ateratzeko helburuarekin.

### Herritarren partaidetza sustatzeko dirulaguntzak

Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko Zuzendaritzak aurten ere, herritarren partaidetza sustatzeko helburuarekin bi dirulaguntza lerro zabalduko ditu datozen egunetan: bata, lurraldeko udalei zuzenduta; eta bestea, lurraldeko herritar erakundeei bideratua.

### IDEIAK 2024

Aurten, IDEIAK programaren hirugarren edizioa jarriko dugu abian. Aurreikusita dago deialdia datozen egunetan argitaratzea. IDEIAK 2024 edizioak aurrekoarekin alderatuta, aldaketa batzuk izango ditu; besteak beste, proiektuak 2024an zehar gauzatu beharko dira.

**Hemen** aurreko edizioak eman duena.

## PRAKTIKA ONAK

### Harrera-ibilbide komunitario integralerako gakoak

Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikorako Zuzendaritza Nagusiak eta Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko Zuzendaritza Nagusiak harrera publiko-komunitarioa garatzearen erronkari eutsi diote elkarlanean, harrera-ibilbideak modu kolektiboan erantzun beharra azpimarratuz eta harrerak kalitatezkoa eta integrala izan behar duela berretsiz. Zehazki, lan-mahai tekniko bat sortu da, eta zeregin nagusia izan da harrera-ibilbide integral komunitario bat diseinatzeko tresna bat sortzea, bereziki begirada komunitarioan arreta jarri duena.

Sortutako tresna, epe motzean, datozen bi jardunaldietan aurkeztuko da:


Apirilaren 26an, Europear Aniztasun hilabetearen barruan *Harrera integral komunitarioa Gipuzkoan* jardunaldian

Maiatzaren 17an, Udaltop-eko *Nola erakarri etorri berriak euskarara? Eta,*



## Geo-mapa osatu dugu

**Geo-mapan** udalerrietako esperientzien-mapa egituren maparekin osatu dugu eta berau jasotzen duen berriazko atala sortu dugu. Atal berrian, udalek Herritarren partaidetza bermatzeko edota sustatzeko dituzten baliabide edota egituren buruzko informazioa kontsultatu ahal izango duzu. Maparen ezkerrean zerrendatzen diren alorrak klikatzean, mapan aktibatuko dira horiek badituzten udalak. Bestalde, mapan bertan, udal bakoitzaren gainean klikatzen baduzu, horren xehetasunak ikusi ahal izango dituzu.



## TREBAKUNTZAK

### Partaidetzazko aurrekontuak: ekainak 14

Ekainerako kalitatezko partaidetzazko aurrekontuen prozesu batek barne bildu behar dituen faseak eta fase bakoitzeko urrats nagusiak zeintzuk diren azalduko ditugun trebakuntza-saioa antolatu dugu. Beti ere, jakitun izanik, gisa honetako prozesuak garatzeko modu bat eta bakarra ez dagoela eta tokian tokiko errealitatera egokitutako prozesuak behar dutela izan. Hala ere, badaude kontutan hartu beharreko gako batzuk eta horien inguruan arituko gara.

- **Hartzaileak:** partaidetzazko aurrekontuen prozesuak abiatu edo hobetu nahi dituzten udalerrietako ordezkari tekniko nahiz politikoak.

Laster emango dizkizuegu xehetasun gehiago; hala ere, data gorde!!



## BALIABIDEAK

### OGPk sortutako azken gidak

Opn Government Partnership - OGP Euskadiren baitan lanean jarraitzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak eta hauek dira azkenengo urtetako lanketetatik sorti duren bi baliabide:



#### Arrakalarik gabeko ekimen digitalak sortzeko gida

Gida honen helburua, ekimenak diseinatzeko prozesuan eta hartu beharreko erabakeitan, kontuan izan beharreko faktoreak identifikatzen eta definitzen laguntzea da, ekimen digitalen diseinuan arrakala digitala ekiditeko tresnak eskainiz. Honekin, erakundeek eskaintzen dituzten ekimenak (berriak edo dagoeneko daudenak) pertsona orok, duen gaitasun digital eta testuinguruak baldintzatu gabe, era aske, eroso eta ahalik eta autonomoenean erabili ahal izateko diseinatzea lortu nahi da.



#### Kultura etikoa erakundeetan sustatzeko gida

Gidak Kultura Etikoaren kontzeptuak argitzen ditu eta ibilbide orri bat proposatzen du, erakundeetan norabide berean eta parte hartzea kontuan hartuz jarduteko. Hala, gatazka etikoak balio etiko adostuetan oinarrituta kudeatzea proposatzen du, eta, honez gain, erakundeetan kultura etikoa adostu eta sustatzeko tresna eraginkorra izatea ere bilatzen du.

- Gatazka Etikoen kasuen adibidea: Erakundearen eta herritarren arteko harremanean sortzen diren gatazkak. **Ikusi bideoa.**
- Gatazka Etikoen kasuen adibidea: Azpiegitura publiko baten erabiltzaileak zehaztu nahi

dira herriko gizarte eragileekin  
lankidetzan. **Ikusi bideoa.**



Nabigatzailean posta elektronikoa ikustea

Elhuyar Aholkularitza · Zelai Haundi 3 · Osinalde industrialdea · Usurbil, Ss 20170 · Spain  
[zure lehentasunak eguneratu](#) or [harpidetza utzi](#)

